



Haritz Muñoa historialariak jasoko du Hernaniko kultur ondarea aztertzeke beka

'Hernaniko kultur ondarea berrikustea eta eguneratzea' proiektua aurkeztu zuen hernaniarrak, eta lanaren helburua da «herrian dauzkagun elementuak ezagutarazi eta horiei buruzko informazioa herritarren eskura jartzea».

HERNANI KULTUR ONDAREA

Haritz Muñoa historialari hernaniarrak jasoko du beka, herriko kultur ondarea aztertzeke. Aurkeztutako proiektuen artean, Muñoarena aukeratu du epaimahaiak: *Hernaniko kultur ondarea berrikustea eta eguneratzea*. Honako hiru kideek osatu dute epaimahaia: Juan Ignacio Elizondo arkitektoak, Alfredo Moraza Aranzadiko zientzialariak, eta Koro Etxeberria kultura zinegotziak.

Bere lanarekin, Muñoaren helburua da Hernaniko kultur ondarearen «garrantzia» azpimarratzea: «herrian dauzkagun elementuak ezagutarazi eta horiei buruzko informazioa herritarren eskura jartzea». Ho-

rretarako, bere eginbehar nagusia izango da «elementu horien analisia, eguneratzea eta errebisioa» egitea, eta «arreta berezia» jarriko du Hernaniko Udaleko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako katalogoe-tan jasota edota sailkatuta dauden elementuetan.

8.000 euroko beka jasoko du Haritz Muñoak, horretarako; eta bederatzi hilabeteko epea izango du, lana bukatzeko.

Behin lana bukatuta, «gida moduko bat argitaratzea» aztertuko du Hernaniko Udalak, jakinarazi duenez.

Historian lizentziatua da Haritz Muñoa, eta Dokumentazioaren, Artxiboen eta Liburutegien kudeaketan ikasketak egin ditu, eta baita Kultur Ondarea-



Haritz Muñoa historialari hernaniarrak jasoko du aurtengo beka.

ren, Artxibo Historikoen eta Liburutegien zuzendaritzan ere, besteak beste. Dagoeneko hasi da, proiektuan aurkeztutako lana burutzen.

Aurreko deialdiko bi proiektuak, laster ikusgai Udalak jakinarazi du, bestalde, *ondarea.hernani.eus* webgunean ikusi ahal izango direla, aurre-

ko deialdiko bi proiektuak, 2018-2019koak. Dagoeneko ikusi daiteke *Azeridantza* dokumentala, Dobera Euskara Elkartearena; eta laster jarriko dute *Hernaniko industria-ondarea Urumea bailaran zehar* lana, Miren Garcia Dalmau eta Alfredo Moraza Berazarena. Eta horiekin batera, argitaratuko dituzte egindako beste hainbat ekarpen. **K**

Inauteriak bihartik martxan, Hernanin eta Astigarragan

URUMEA INAUTERIAK

Kolorea eta musika alaia izango dira protagonista bihartik, Hernanin eta Astigarragan, Inauterien hasierarekin. Hernanin, 15:15etan izango da jaien hasiera Plazan, eta arratsaldean denetik izango da: erraldi eta buruhaundiak, Gora Kasete ikuskizuna Plaza Berrin, Musika Bandaren kontzertua Milagrosan... Astigarragan, berriz, *Superheroiak* emanaldia eskainiko dute Herri Eskolako ikasleek, 14:30etan kiroldegian. Goizuetan, igandean hasiko dira Inauteriak.

Joku tailerrak gaur, Goxalin

GOIZUETA GOXALI

Hilabeteko azken ostegunero bezala, joku tailerrak izanen dira gaur Goxalin, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. Irekia eta doakoa izanen da.

Udal Aurrekontuei buruz aritzeko, batzarra bihar

GOIZUETA UDALA

Batzarra deitu du Goizuetako Udalak, bihar arratsaldean, Udal Aurrekontuei buruz aritzeko, eta legegaldi honetarako dituen asmoen berri emateko. Horregatik, bertaratzeko gonbitea luzatu die, herritar guztiei. Udaletxeko ganbaran izanen da, 18:30etan hasita.

Hiru partida gaur, mus txapelketan

HERNANI TXANTXANGORRI

Gaur jokatuko dira, Txantxangorri elkarteko mus txapelketaren hiru partida, honako bikoteekin: Javi-Pello eta Joxe Leon-Koldo; Jesus-Iñigo eta Bixente-Koldo; eta Joseba-Jonkar eta Mauri-Txampi.

Urteko aurreneko zita gaur, odola emateko

Anbulatorioan izango da, 18:30etatik 20:30etara, eta astigartar guztiei luzatu diete deia, bertaratu eta odola emateko: «gure bizitzako ohiko ekintza bat izan behar da odola ematea».

ASTIGARRAGA ODOL EMAILEAK

Gaurko jarri du hitzordua, Astigarragako Odol Emaleen Elkar-teak; eta arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara izango da aukera, ambulatorioan, odola emateko.

Urteko aurreneko hitzordua izango da, aurrekoa 2019ko urrian egin baitzuten. Eta orduan, pozgarriak izan ziren emaitzak elkartearentzat, 50 herritarrek eman baitzuten odola; horieta-

ko asko, gainera, gazteak. Horregatik, espero dute gaur ere horiek bezain emaitza onak lortzea, eta deia luzatu diete herritar guztiei, bertaratzeko: «egunero behar izaten da odola, hainbat egoerari aurre egiteko; beraz, gure bizitzako ohiko ekintza izan behar da odola ematea», nabarmendu dute.

Eta era berean, elkar-teak eskerrak eman nahi izan dizkie, odol emale guztiei. **K**



50 odol emale izan ziren aurreko hitzorduan, 2019ko urrian.



EGURALDIA
GAUR
Giro eguzkitsua eta lasaia izango dugu gaur ere. Laino gubi izango dira zeruan, ia egun osoan zehar. Hegoaldeko haizea bizi ibiliko da goizean, eta ipar-mendebaldera aldatuko da arratsaldean; orduan, laino batzuk sartuko dira. **Min.6° / Max.15°**

BIHAR
Fronte bat sartuko da bihar, eta aihilduta iritsi arren, zerua lainotuko du. Baliteke xirimiri pixka bat egitea ere, goizean. Arratsaldean garbituko du, pixkanaka. Lainoen eraginez, tenperatura minimoak epeldu egingo dira, baina maximoak hoztu. **Min.8° / Max.13°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Euzko Legebiltzaria
Gipuzkoako Foru Aldundia
ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietara, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK
Euzko Legebiltzaria
Gipuzkoako Foru Aldundia
PEFC

Telmo Trenorrekin bideoklipa grabatzeko aukera, hernaniarrek

BeatEroak egitasmoan, beatmakerrarekin rap abestia sortu eta bideoklipa grabatzeko aukera izango dute 12-16 urtekoek, martxoaren 13an. Izena eman behar da, otsailaren 29era arte.

HERNANI GAZTELEKUA

BeatEroak esperientzia pilotua jarri dute martxan, nerabeei zuzenduta; eta horretan parte hartuko du Hernaniko Gaztelekuak, Gaztematika, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Legazpi, Zumarraga eta Urretxuko udalekin batera.

Hori horrela, Hernaniko nerabeek aukera izango dute, Telmo Trenor beatmakerrarekin rap abesti bat sortu eta bideoklipa grabatzeko. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta martxoaren 13an egingo dute, ostiralarekin, Gaztelekuan bertan. Arratsaldeko 16:30etatik

19:30etara izango da.

«Telmo Trenorrek esperientzia luzea du beatmaker munduan. Ezagunak dira *Maps* edo *Heat* izeneko lanak, eta baita bere DJ saioak ere. Musika ekoizteaz gain, askotan eman ditu DJ ikastaroak, batik bat Donostian», azaldu dute.

Abestien sortze prozesua ezagutzeko aukera, «tripetatik» Martxoaren 13ko saioan, rap abestiak nola egiten diren erakutsiko die gazteei, eta elkarrekin josiko dituzte hitzak eta errimak, berak sortutako oinarrien gainean. Bideoklipa egingo dute, ondoren.

Nabarmendu dute, gazteena izango dela hitza, egitasmoan: «aldarri ezberdinen arteko lotura egin, eta hitzarekin jolas-teko aukera izango dute. Egitasmoaren helburua da, horrelako abestiak sortzeko prozesua tripetatik ezagutzea, eta nerabeei aukera ematea experimentatzeko, profesional baten laguntzarekin». Eta era berean, landuko dute nola hausnartu gazteei kezka sortzen dieten gaien inguruan, eta nola eraman kezka horiek errimeta.

Izena emateko, hamar egun

Egitasmoan parte hartzeko, izena eman behar da alde aurretik, Gaztelekuan bertan. Otsailaren 29a da azkeneko eguna, eta mugatua da partaide kopurua. Egun horretatik martxoaren 13ra bitarte, prestatzeko zenbait saio egingo dituzte, apuntatu diren gazteekin. **K**



Amaiur Velez hernaniarra, podiumeko koxkarik altuenean, Donostiako belodromoan.

Amaiur Velez Gipuzkoako txapeldun, 60 metro hesidunetan

HERNANI ATLETISMOA

Joan den larunbatean jokatu zen, Donostiako belodromoan, Gipuzkoako Txapelketa, pista estaliko denboraldian. Bertan izan ziren, CD Hernaniko zortzi atleta, kadete eta juvenilak.

Maila ederrean aritu ziren, eta haietako lauk lortu zuten domina ekartzea, gainera. Podiumeko koxkarik altuenera igo zen Amaiur Velez kadetea, 60 metro hesidunetan urrezko domina lortuta. Jubenilen

altuera jauzian, bigarren eta hirugarren izan ziren Naroa Vietes eta Naia Gomez, hurrenez hurren. Eta brontzezko domina lortu zuen Nagore Urkiola juvenilak, luzera jauzi hirukoitzean.

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Eskerrik asko, Hernaniko haur eta familiei

Hernaniko haur eta familiei: eskerrik asko bihotzez. Bi urte eta erdi hauetan, etxekoa banintz bezala sentiarazi nauzue, bai pediatriako kontsultan, eta baita herrian ere. Zuen familien parte sentitu naiz, eta oso oroitzapen

politak gordeko ditut betirako. Zuei esker, ilusio handiarekin etorri izan naiz egunero lanera.

Espero dut nire hurrengo lantokia zuena bezain jator eta sana den herri batean izatea. Askok gustatuko litzaidake, ahal

izanez gero, Hernanin lan egitera itzultzea etorkizunean.

Besarkada handi bat denoi, eta laster arte.

Janire Echevarri Mendia
Hernaniko anbulategiko
pediatra

Urteurren bazkarirako, gaur aukera

HERNANI LANGILE IKASTOLA

50garren urteurreneko ekintzen artean, bazkaria antolatu du Langile ikastolak, maiatzaren 16an, Etxeberriko frontoian. Guraso, irakasle, ikasle eta ikasle ohientzat izango da, eta txartelak dagoneko eskuratu daitezke, 10 euroan. Gaur eta datorren ostegunean, Biterin egongo dira salgai, 17:00etatik 19:00etara. Eta datozen bi igandeetan, 11:00etatik 13:00etara Etxeberriko Auzokide elkartearen.

Amaitu dira Ene Kantaken Satorjator emanaldietarako sarrerak

HERNANI ENE KANTAK

Ene Kantak proiektuaren antzerki musikatu berriena ekarriko du Dobera Euskara Elkartek Hernanira, Satorjator, eta sarrerak amaitu dira, bai Hernanin zein Astigarragan. Emanaldia otsailaren 29an izango da, Oronan.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† M^a DOLORES AYERZA ORBEGOZO

(Joxe Ramon Berrondoren alarguna)

Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Seme-alabak: Luis (†), Joxe Ramon eta Arantxa Elizagirre; bilobak: Joxe Ramon, Garazi; ilobak, gainerako ahaideak eta Antonia Serrano.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko otsailaren 20an

OHARRA: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:30ak arte.

M^a DOLORES AYERZA ORBEGOZO

Hernani BHI *Familiari agurririk beroena*

HERNANI BHI INSTITUTUKO GURASO, IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK

Hernanin, 2020ko otsailaren 20an

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Berrikuntza: ostiral eguerdian irekita enkarguz

EULA

Kalitate handiko 4.600 sagarrondo
Tolara sagardotegia
Asteazkenetik larunbatera gauzez
Ostiral, larunbat eta igandean eguerdian ere bai
Berogailua

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA
Hernaniko Portu auzotik 5 minututara

943 55 27 44
www.eulasagardotegia.com